

Hirigintza / Urbanismo: 201843

📞 94 621 55 81

ELIXALDE KALEAN ETA AITA SAN MIGEL PLAZAN OSTALARITZAKO ETA ANTZEKO JARDUERAK JARTZEKO ETA MARTXAN IZATEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

Gure herrietan ohitura da aisiarako eta aisialdirako jendarteko establezimenduak zabaltzea. Azken urteotan, udalerriko herritarren artean interes handia eragin du ostalaritzako jarduerak irekitzeak, besteak beste, tabernak, kafetegiak edo txokoak, parrokiaren eta lurreta udalerriko udaletxearen inguruan. Eskari horri erantzuteko, eta udalerriko gizarte- eta ekonomia-garapenerako inbertsio-proiektuak finantzatzeko, Udalak gune horrek dinamismo gehiago izateko eta bertan jende gehiago batzen laguntzeko ostalaritza-jarduerak ezartzea sustatu nahi du.

Hala ere, Administrazioak ezin du inaktibo egon, ostalaritza-jarduera horiek ezartzen direnean, normalean ekipo elektrikoak, elektronikoak eta/edo industria-makinak ezarri behar baitira, jatetxeari lotuta, eta horiek arriskuak ekar ditzakete segurtasunari dagokionez, bai ekipo horiek maneiatzeko arduraren dutenengan, bai jendartean, oro har.

Bestalde, aisia eta herritarren segurtasuna egoki erabiltzea udalerrientzat balio interesgarriak dira, eta horiek babesteko, auzo-erkidegoaren onerako, Udalaren ekintza, bidezkoa izateaz gainera, beharrezkoa ere bada.

Agerikoa da, halaber, horrelako establezimenduek, jarduerak arauketa tekniko-juridiko egokia izan ezean, interes-gatazka eragin dezaketela eta eragiten dutela, negozioari dagokion ekitaldiko jardueraren titular partikularren interesaren eta interes publiko orokorraren artean; kasu honetan, establezimendu horietatik hurbil bizi diren auzokideen intimitate- eta segurtasun-eskubidea da publikoaren interesa, lokalaren barruan izaten diren zaratek eragindako eragozpenen ondorioz nahasmenduak jasaten baitituzte.

Hori guztia dela eta, eremu horretan udal-administrazioaren ekintza agintzen duten xedapen egokiak hartu behar dira, eta hori ostalaritzako eta antzeko jarduerak jartzeko eta martxan izateko udal-ordenantza arautzaile honen bidez egingo da.

Jarduerak zehazteko, Eusko Jaurlaritzaren 171/1985 Dekretua hartuko da oinarri. Jarduerak zehazteko plangintza honako hau da: ahal den neurrian, zarataren, dardaren, ordutegiaren eta abarren arloan bete beharreko eskakizunak ezartzeko esanguratsuak diren jardueraren ezaugarriak deskribatzea.

Azken batean, Ordenantza honen helburu nagusiak honako hauek dira: batetik, herritarren arteko bizikidetzaren baketsua arautzea aisialdirako lekuetan eta, horrela, establezimenduen segurtasun- eta kalitate-baldintzak betetzen direla bermatzea, eta, bestetik, babes zibila eta ingurumen-babesa bermatzea, historikotzat jotzen den gunean –kulturakoa, parrokia eta lurreta udalerriko udaletxea dauden ingurunearen ezaugarri bereziak kontuan hartuta–. Azken helburua partikularren jarduera ekonomikoak eta herritarrek atsedenerako eta lasaitasunerako duten eskubidea uztartzea da.

Ostalaritza-jardueren eta antzekoen proiektuak eta gauzatzeak erakunde tekniko eskudunek emandako aplikazio-arau berezietara eta, bereziki, Ordenantza honetara egokitu beharko dira, eta, oro har, Ordenantza honetan aurreikusi ez denerako, honako hauetara:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena.
- 171/1985 Dekretua, ekainaren 11koa, Egoitzazko hiri-lurzoruan ezartzekoak diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatu beharreko arau tekniko orokorrak onesten dituena. Eta 1627/2008 Foru Agindua, uztailaren 30ekoa, Ingurumen Sailarena.
- 296/1997 Dekretua, abenduaren 16koa, Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituena Euskal Autonomi Elkartearen eremuan, eta ondoko aldaketak, martxoaren 13ko 36/2012 Dekretua eta otsailaren 11ko 14/2014 Dekretua.
- 842/2002 Errege Dekretua, Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena.
- edo hura ordezkaten duten arauak.

I. KAPITULUA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua. Helburua

Ordenantza honen helburua da udal-jarduketa arautzea hurrengo artikuluan aipatzen diren ostalaritza- eta aisia-jardueren funtzionamendu egokia kontrolatzeko, bai eta auzokideak babestea ere, deserosotasunak eragiten dituzten, osasungarritasun- eta higiene-baldintza arruntak asaldatu edo pertsona edo gauzei arriskuak eragiten dizkieten jardueretatik.

2. artikulua. Eremua

2.1. Ordenantza honen araupean daude:

Iurreta udal-mugarteko Elixelde kalean eta Aita San Migel Plazan jatekoak eta/edo edariak saldu eta kontsumitzeko etengabeko izaera publikodun edo pribatudun jarduera, lokal eta instalazio guztiak, edo jatetxe-jarduera betetzen dutenak, bai eta horien antzeko jarduerak garatzen dituzten establezimendu guztiak ere, jatekoa eta edaria hornitzeko jarduera nagusi barik osagarri duten kasuak barne, betiere leku horretan badaude.

Ordenantza hau aplikagarri izan dezaketen zonen ingurune historikoaren ezaugarri bereziak direla eta, I. eta II. taldeetan sailkatutako eta bakoitzerako aipatzen diren ezaugarriak dituzten establezimenduetarako lizentziak baino ezingo dira eman:

I. taldea

Berariaz adingabeentzat baimendutako lokalak eta instalazioak edo alkoholik gabeko edariak eta elikagaiak saltzeko baimena dutenak, horiek sukaldaritza ekintzarik ez dakartenean, hala nola:

aretoak eta gazteentzako jaiak, gazteentzako dantzalekuak, dastalekuak, izozki dendak, txokolategiak, txurro dendak, tea hartzeko lekuak eta parekoak.

Talde horretan jasotzen dira, salbuespen gisa, 14-17 urte bitarteko gazteen lokalak, baina ezin dute sukaldarik, frijigailurik, plantxarrik, erregailurik eta ezin da musika-aparaturik jarri.

Ezin da musika-aparatu estereofonikorik jarri. Sukaldea, frijigailuak, plantxak, erregailuak izan ditzakete.

- i. 36/2012 Dekretuaren araberako ordutegiarekin
- ii. Zarataren muga: 75dB(A).

II. taldea

Edari alkoholdunak saltzeko edo sukaldaritza ekintzak gauzatzeko baimena duten lokal eta instalazioak, hala nola:

tabernak, ardandegiak, barrak, kafe-barrak, snack-ak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, janari etxeak, txokoak, gastronomia elkarteak, sagardotegiak eta parekoak.

Talde horretan jasotzen dira, salbuespen gisa, 18-25 urte bitarteko gazteen lokalak, baina ezin dute sukaldarik, frijigailurik, plantxarrik, erregailurik eta ezin da musika-aparaturik jarri.

Musika-aparatu estereofonikoak jar daitezke, eta sukaldea, frijigailuak, plantxak, erregailuak izan ditzakete.

- i. 36/2012 Dekretuaren araberako ordutegiarekin
- ii. Zarataren muga 85dB(A).

2.2. Terrazak eta mahai hankabakarrak jartzea

1. Terraza eta mahai hankabakartzat joko dira mahai- eta eserleku-multzoa, eta horren instalazio osagarriak, finkoak edo mugigarriak, besteak beste, itzalkinak, euskarriak, toldoak, alboko babesak eta abar.

2. Terrazak Ordenantza honetan jaso diren ostalaritza-jardueren irekiera-lizentzia baten titular direnek baino ezingo dituzte jarri.

3. Aire zabalean edo establezimendu nagusi bati erantsita dauden terraza edo instalazioek udalerrriak emandako gaikuntza-titulu egokia izan beharko dute; horrek mugatu egin dezake instalazio horien erabilera-ordutegia eta, nolatan ere, auzokideei eragozpenak ekarriko dizkien edozein jarduera egitea.

4. Terrazak ezingo dira jarri bi metro eta laurogeita hamar (2,90) metro baino gutxiagoko zabalera duten oinezko espazio edo espaloietan; horrela, bermatu egin beharko da 2,00 m-ko gutxieneko zabalera. Eta ezin da jarri oinezkoentzako pasabideen, minusbaliatuek aparkatzeko plazen, etxebizitzetako atarien, larrialdi-irteeren, beira-edukiontzien, kartoi-edukiontzien, zaborrontzien eta abarren ondoan, ez eta galtzadaren babesik ez duten zirkulazio azkarreko bideen ondoan ere.

Era berean, terrazak jartzea debekatu ahalko da, bide-segurtasunagatik, herri-lanengatik eta interes publikoko antzeko beste motibo batzuegatik.

5. Terrazetan ez da inolako musika-aparaturik, bozgorailurik eta abarrik jarriko.

6. Oztoporik gabeko etengabeko oinezkoen ibilbidea bermatu beharko da, eta Irisgarritasunaren Sustapenari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta hura garatzen duten arau teknikoak edo ordezkatzan dituzten arauak betetzen direla justifikatu beharko da.

7. Terrazak jartzeko lizentziaren eskabideak udal-administrazioak ebatziko ditu, kasu zehatz bakoitzaren bereizgarrien arabera.

2.3. Baztertutako jarduerak

Berariaz baztertuta daude arauketa honetatik zeharkako instalazioak, besteak beste, txosnak eta beste egitura desmuntagarri batzuk, egun zehatz batzuetan ikuskizunak eta jaialdiak antolatzeke jartzen direnak. Hala ere, instalazio horiek beharrezko udal-baimena eskuratu beharko dute eta araudi orokorra bete, funtsean segurtasunaren eta higienaren arloan.

Aldi baterako establezimenduak herriko jaiak eta bestelako ospakizunak direla eta jartzen diren txosnak arautzen dituen udal-araudian jaso diren zehaztapenen arabera arautuko dira.

3. artikulua Ordutegiak

1. Jardueraren ordutegiak 296/1997 Dekretua eta hurrengo aldaketak (ikus 36/2012 Dekretua) oinarri hartuta arautuko dira. Laburpen gisa, honako ordutegi hauek ezarriko dira, jardueraren arabera:

- I. taldeko jarduerak: 22:30ak arte; terrazak: 22:00ak arte.
- II. taldeko jarduerak: 00:30a arte; terrazak: 00:00ak arte.

Talde bietan itxiera ordua ordu erdi luzatu daiteke ostiral, larunbata eta jai bezperetan.

2. Ordutegi bereziak ezartzeko araubide berezia eta ezarpena 296/1997 Dekretuan garatutako artikulua eta hurrengo aldaketak oinarri hartuta arautuko dira.

3. Udal-agintaritzari dagokio, zerbitzu teknikoek txostena eman ondoren, establezimendu jakin bat talderen bati atxikitzea, partikularrak aurkeztutako proiektuan jaso diren aurreikuspenen mende edo, hala badagokio, legezta nahi den jardueraren errealitatearen mende.

4. Establezimenduren bat argi sartu ezin bada talderen batean, udal-zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren, jardueraren ezaugarrien arabera antz gehien duenean sartuko da.

5. Establezimendu bat bi taldetan sartu ahal bada, araudi zorrotzena aplikatuko da, zarata egiteko eta isolatzeko eskakizunei dagokienez.

6. Ordenantza hau 21. artikuluan jaso diren tolerantziekin aplikatuko da, eta betiere instalazio finkoei dagokienez. Beraz, berariaz baztertzen dira arauketa honetatik behin-behineko eta aldi baterako jardueren instalazioak. Hori guztia gorabehera, baztertutako instalazio horiek dagokien udal-baimena eskuratu beharko dute eta, funtsean, segurtasun- eta higiene-arloko arau orokorrak bete.

7. Era berean, araudi hau bete beharko dute eraginpean dauden jarduerak helburu dituzten obrek.

8. Ordenantza honek, bestalde, aurreko ataletan deskribatutako eta beste jarduera nagusi baten osagarri gisa funtzionatzen duten jarduerak arautuko ditu (kafetegiak, tabernak eta/edo jatetxeak hoteletan, zinemak, bingoak, kirol-instalazio itxiak, merkataritza-zentroak edo -galeriak, egoitza politikoak edo sozialak etab.).

II. KAPITULUA ERAIKINAREN EGOERA

4. artikulua Eraikinaren egoera

1. Jarduerak eraikinetako beheko solairuetan izango dira,
2. Beheko solairuen gutxieneko garaiera libre amaitua, apaindurak eta intsonorizazioak barne, bi metro eta laurogei zentimetro izango da (2,80 m).
3. Langileen edo publikoen erabilera ez-iraunkorrerako komunak, biltegiak eta bestelako bulegoak direla eta, gutxieneko garaiera libreak bi metro eta hogeita hamar zentimetrora arte murriztu ahalko dira (2,30 m).

5. artikulua Establezimenduen tamaina eta forma

1. Eraikitako 100 m² baino gutxiagoko azaleradun jarduerak gutxienez 3,20 ml-ko frentea izan beharko dute erabilera publikoko bide edo espazio libre gisa kalifikatutako lursailletara.
2. Eraikitako 100 m² baino gehiagoko azaleradun jarduerak, gutxienez, 3,20 ml izan beharko dute erabilera publikoko bidetzat edo espazio libretzat kalifikatutako lurzoruetara, eta 0,4 ml gehiago hortik gora eraikitako 25 m² bakoitzeko edo horren frakzio bakoitzeko.
3. Eraikitako 100 m² baino gutxiagoko azaleradun jarduerak gutxienez 2,00 ml-ko frentea izan beharko dute erabilera publikoko bide edo espazio libre gisa kalifikatutako lursailletara.
4. Eraikitako 100 m² baino gehiagoko azaleradun jarduerak, gutxienez, 2,00 ml izan beharko dute erabilera publikoko bidetzat edo espazio libretzat kalifikatutako lurzoruetara, eta 0,4 ml gehiago hortik gora eraikitako 25 m² bakoitzeko edo horren frakzio bakoitzeko.

III. KAPITULUA ESTABLEZIMENDUEN EKIPAMENDUA

6. artikulua Sukaldeak

1. Elikagaiak manipulatzeko eta/edo biltzeko lurzoruen eta hormen azalerak lauak, iragazgaitzak, garbitzeko eta desinfektatzeko errazak dira. Lurrek, beharrezkoa denean, makurdura nahikoa izango dute likidoa ez atxikitzeko, eta beharrezko hustubideak izango dituzte. Sabaiak erraz garbitzekoak izango dira.
2. Argiztapen naturala edo artifiziala behar bezala babestuta egongo da eta, horrela, apurtuz gero, ez ditu elikagaiak kutsatuko.

3. Elikagaiekin kontaktuan dauden makinien materialak eta azalera lauak izango dira, ez dira toxikoak izango, korrosioarekiko erresistenteak eta garbitzeko eta desinfektatzeko errazak.

4. Edateko ur hotza eta beroa izango du, elikagaiak manipulatzeko, instalazioak garbitzeko eta nork bere burua garbitzeko kopuru nahikoarekin.

5. Aireztapen naturaleko edo behartuko sistema izango du, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

6. Elikagaiak manipulatzeko eta/edo ontziratzekeo guneeetatik hurbil, eskuz eragiten ez den konketa izango du (pedala edo zelula fotoelektrikoa), eta horrek ur hotza eta beroa izango ditu, xaboi dosifikagailua eta erabilera bakarreko esku-oihalak.

7. Sistema ez-kimikoa izango dute; horrela, intsektuak saihestuko dituzte.

7. artikulua Komunak

1. Establezimendu publiko gisa sailkatutako lokal guztiek zerbitzu sanitario independenteak izango dituzte, emakumeentzat eta gizonentzat, eta horietako bakoitzean sartzeko atariarekin; horietara sarrera librea izango da eta murrizketarik gabea, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legean ezarritako artikuluen arabera.

2. Oro har, establezimendu orok izan beharko ditu bi komun eta honako ezaugarri hauek:

a) 2,20 m²-ko gutxieneko azalera, eta gutxienez metro bateko albo (1,00 m).

b) Garaiera libre erabilgarria, lurzorutik sabaira bitarteko neurria, gutxienez bi metro eta hogeita hamar zentimetrokoa (2,30 m).

3. 100 m² gainditzen dituen azalera duten establezimenduek komunerako azalera areagotu egingo dute, bi koma hogeit metro koadro (2,20 m²) gehiegizko hogeita hamar metro koadro bakoitzeko (30 m²) edo frakzioko; hala ere, kontuan hartu beharreko beste arauketa batzuk ere aintzat hartu beharko dira.

4. Guztira dagoen bainugela kopurua proportzioan banatuko da, gizonen eta emakumezkoen artean, eta gizonen artean komun erdiaren ordez pixalekuak jarri ahalko dira.

5. Bainugeletara ezingo da sartu zuzenean sukaldetik edo jangeletatik, ez eta elikagaiak manipulatzeko edo biltzen diren lekuetatik ere.

6. Hala eta guztiz ere, garatuko den jardura 2816/1982 Dekretuan eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Polizia Arauketaren ondoko berrikuspenetan definitutako artean badago ere, Dekretu horren 12. artikuluan zehazitutako kopuruari, erabilgarritasunari eta zuzkidurari buruzko gutxieneko eskakizunak bete beharko dira.

8. artikulua Aldagelak

1. 10 enplegatu edo gehiago dituen establezimendu orok izan beharko du barruti itxia aldagela gisa erabiltzeko, eskusiboki, langileko 2 m²-koa, eta laneko segurtasunari eta higienerari buruzko indarreko araudiaren arabera beharrezkoak diren ekipamenduak izan beharko ditu.

2. Indarrean dagoen araudiak aldagela egokitua izateko eskatzen badu, 68/2000 Dekretuan hiri-ingurune, espazio publiko eta eraikuntzetako irisgarritasun-baldintzei buruz ezarritako baldintzak beteko dira

9. artikulua Hondakin solidoak

1. Hondakinatarako gela bat behar ez bada ere, establezimendu guztiek izango dituzte zaborretarako bakarrik erabiltzeko ontziak, erraz garbitzekoak eta desinfektatzekoak, itxitura hermetikoarekin, kopuru eta bolumen nahikoarekin jardunaldi batean sortzen diren hondakin guztiak botatzeko nahikoa. Ontzi horiek sukaldearen barrutitik kanpora egon behar dute, eta zabor-oltza irekiak eta itxiak ixteko balioko dute.

2. 200 m²-ko edo gehiagoko azalera osoa duten lokalek barruti itxia izango dute, bide ofizialetik hurbil, eta 1.100 litroko edukiera duen edukiontzia jartzeko lekua duena. Gehiegizko 100 m² bakoitzeko edo frakzioko, 400 m²-en gainean, antzeko edukiera duen edukiontzi berria gehituko da.

Barruti hori, era berean, Laneko segurtasunari eta higienerari buruzko araudira egokituko da.

10. artikulua Biltegia

1. Oro har, establezimendu guztiek izan beharko dute gune itxi bat, biltegirako bakarrik erabiliko dena, kutsatzeko arriskua duten iturrietatik urrun, sukaldetik independentea eta sarbide errazekoa. Edariak biltzeko bakarrik erabiltzen bada, lokal nagusitik aparte jarri ahalko da, betiere produktua garraiatzeak zarata gogaikarririk eragiten ez badu bide publikoan, batez ere gaueko orduetan.

2. Bilketa-eremu horren azalera, gutxienez, lokalaren azalera erabilgarriaren % 5 izango da.

3. Hotz-katea behar duten lehengai eta/edo produktuak biltegiratzeko, hozkailu-ekipoak izango dira, lehengai bateraezinentzat, tarteko produktuentzat eta prestatutako produktuentzat bereizita, bolumen nahikoarekin. Kanpotik 0 eta 8.°C bitarteko tenperaturak bermatzeko eta kontrolatzeko aukera emango dute, lehengai hoztuen bidez, eta -18.°C-tik beherakoak, lehengai izoztuen kasuan.

11. artikulua Beste bulego batzuk

1. Jarduerak hala behar duenean, honako hauetarako lokalen ezaugarriak:

- a) Lehengaiak manipulatzeko eta garbitzeko.
- b) Tratamendu termikorako.
- c) Garbiketarako.
- d) Edukiontzi eta ontzi berrerabilgarri garbiak biltegiratzeko.
- e) Hondakinak biltzeko.
- f) Produktu prestatua manipulatzeko.
- g) Ontziratzeko.
- h) Ontziak eta bilgarriak biltegiratzeko.
- i) Eskariak paketatu eta prestatzeko.

2003ko martxoaren 20ko 3535 zenbakiko Aginduan deskribatutakoak izango dira, Osasun Sailak prestatutakoak. Agindu horren bidez, bete beharreko osasun-eskakizunak zehazten eta ezartzen dira.

IV. KAPITULLUA SEGURTASUN BALDINTZAK

12. artikulua. Segurtasuneko baldintza orokorrak

Jarduera zein Talderi esleitzen zaion gorabehera, nahitaez bete beharko dira EKT OD-SS, EKT OD-ESI eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Polizia Arauketa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea, eta Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua eta horren aldaketak (uztailaren 28ko 210/1998 Dekretua, martxoaren 13ko 36/2012 Dekretua eta otsailaren 11ko 14/2014 Dekretua), azken horren bidez ezartzen dira jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren ordutegiak.

13. artikulua Argiztapena

1. Ordenantza honetan jaso diren lokalen instalazio elektrikoetarako (esleitutako taldea gorabehera), oro har, nahitaez bete beharko da abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua; horren bidez, Tentsio Baxuko Arauketa Elektroteknikoa onetsi da, eta zehazki lokalen barrualdeko argiztapen-mailetan eragiten da, eta ilunantz gunerik ez eragiteko diseinatzen da eta, horretarako, zoladuraren eta bertatik bi metrotara (2 m) dagoen planoaren arteko puntu guztietan gutxienez 10 (10) lux-eko argi-maila ziurtatu behar da.

2. Ohiko argiztapena gorabehera, establezimenduek larrialdietarako argiztapena eta seinaleztatzeko argiztapena izango dute, irteeretara jotzeko ateen gainean, eskaileretan, korridoreetan eta atondoetan, eta lokalaren eskailera-maila bakoitzean larrialdietarako argiztapenari konektatutako seinaleztapen-pilotuak jarriko dira, indarrean dagoen araudia betetzeko.

V. KAPITULUA AIREZTAPEN BALDINTZAK

14. artikulua. Aireztapenerako baldintzak. Jendaurreko guneak

1. Lokalaren instalazioko jarduera berri guztiek bete beharko dute EITA eraginpean dauden ataletan.

2. Barneko airearen kalitatea bermatzeko, eraikuntzetako instalazio termikoen erregelamenduak aireztatzeari eta ordu bakoitzeko aire-berritzeari buruz dioena bete beharko da. Hala, aire-kalitatearen kategoria zehaztu eta, horren arabera, aireztapenean kanpotik ekarritako airearen gutxieneko emaria finkatuko da. Gutxienez 8dm³/sg-koa izango da pertsona bakoitzeko; hau da, jatetxeetan, kafetegietan, tabernetan, jai-aretoetan, zinemetan, antzokietan eta abarretan ohikoa den IDA3 neurriaren parekoa, eta betiere auzokideei zaraten edo bibrazioen ondoriozko eragozpenik eragin gabe.

3. Publikoarentzako eremuaren azalera ehun eta berrogeita hamar metro koadrokoa (150 m²) edo handiagoa bada, eraikinaren hegaletik bi (2) metro gorago egon beharko du aireztapenaren hustubideak.

4. 150 m² baino gutxiago dituzten lokalen kasuan, lokalaren aireztapenaren bidez irteten den airearen hustubideak kanpoko lurzorutik 2,20 m-ra egon beharko du gutxienez, eta 45 graduko inklinazioa duen sareta bat eduki beharko du airea gorantz botatzeko. Gainera, kanporatutako aireak usainik edo zikinkeriarik ez sortzeko bitartekoak (karbono-iragazkiak edo beste) eduki beharko ditu. Teknikari gaitu batek emandako ziurtagiri baten bidez justifikatu beharko da hori guztia.

5. Aireztapenerako kanpotik hartzen den airea egoki iragazi beharko da. Gutxienez erabili beharreko iragazpen motak zehazteko, kanpoko airearen kalitatea (ODA) eta barneko airearen kalitatea (IDA) hartuko dira aintzat.

15. artikulua. Komunak eta aldagelak

1. Komunek aireztapen naturala edo artifiziala edukiko dute, kanporako irteera batekin.

2. Komunek eta aldagelek aireztapen-sistema iraunkorrik ez badute, argiaren etengailuari ematean jarriko da abian, edota komuneko zisternako ura deskargatzeko mekanismoari ematean, bestela.

16. artikulua. Zabor-gelak

Airea kanporatzeko aireztapen artifiziala edukiko dute, usainik, zaratarik eta eragozpenik atera gabe. Hori bermatzeko, ainguratze-sistema egokia eta airea kanporatu aurretik usainak metatzea galarazteko arazketa-ekipamendua eduki beharko dute.

17. artikulua. Sukaldeak

1. Sukalderako eremua 4 m² baino txikiagoa bada, 5.000 W-tik beherako potentzia duen mikrouhin-bidezko plater-berogailua ezartzea baimenduko da, baina debekatuta egongo da frijigailuak, plantxak eta erregailuak ipintzea. Gainera, derrigorrez ipini beharko dute gasak iragazteko elementu bat duen kanpaia. Gasak jendartea dabilen lokalera kanporatuko dira, behar bezala iragazi ondoren.

2. Frijigailua, plantxa, erregailua eta abar dituzten 4 m²-tik gorako sukaldeetan, hodi eksklusibo baten bidez egingo da aireztapena eta haren bidez kanporatuko dira kea eta gasak. Erakarpen- eta kanporatze-sistema egokiak erabiliko dira, eta eraikinaren hegaletik bi metro gorago kanporatuko dira, betiere usainik, zaratarik eta bibrazioarik ez eragiteko kontu eginez.

VI. KAPITULUA ETXEKO UR BEROAREN BALDINTZAK

18. artikulua. Etxeko Ur Beroaren baldintza orokorrak

1. Etxeko ur beroari dagokionez, indarrean dagoen legeria higieniko-sanitarioa ez ezik, legionelosiaren prebenitu eta kontrolatzeko araudia ere errespetatuko da.

2. Indarrean dagoen legeriak arautzen ez dituen kontuetarako, etxeko ur beroa erabiltzeko tenperatura egokian prestatuko da, hoditeria-sarean gertatu ohi diren galerak kontuan hartuta.

VII. KAPITULUA BALDINTZA AKUSTIKOAK ETA INTSONORIZAZIOARI LOTUTAKOAK

19. artikulua. Soinu-mailak

1. Lokalek euren ezaugarriei egokitutako intsonorizazio-proiektua aurkeztu beharko dute. Hala, datozen ataletan zehaztuko diren gehieneko zarata-mailak ez gainditzeko eta inguruko erabileratara transmititzen den soinua araudian xedatutako mugetara lotzeko isolamendu akustiko egokia eduki beharko dute.

2. Jarduera abian jarri aurretik, eta zerbitzu teknikoek beharrezkotzat jotzen badute, «in situ» egiaztatuko dira soinu-mailak.

3. Lokalean intsonorizazio-lanak burutu ondoren, tekniko gaitu batek edota intsonorizazioaz arduratzen den erakundeak sinatutako Isolamendu Akustikoaren Ziurtagiria aurkeztu beharko du establezimenduaren titularrak. Ziurtagiri horretan honako parametro hauek agertu beharko dira, gutxienez.

- a) Lokalaren barnealdeko lekurik txarrenaren eta kanpoaldearen arteko aireko zaratarako isolamendu akustikoa, dBa-tan neurtuta, eguneko zarata-indizearen arabera.
- b) Erabilitako materialek zortzidun bandetan duten isolamendua.
- c) Itxitura bertikaletan: kasurik txarrenetako erabilera-unitateen arteko isolamendua, bai aire-zaratarena, bai inpaktuen zaratarena, kasuan-kasuan. Horren justifikazioak egoera guztiak hartu beharko ditu aintzat: lokal babestuaren eta babestuaren arteko banaketa, lokal babestuaren eta bizigarriaren arteko banaketa, lokal bizigarriaren eta bizigarriaren arteko banaketa, eta instalazioetarako gelen eta beste jarduera-areto batzuen arteko banaketa.
- d) Aurreko puntuan adierazitako parametro berberen justifikazioa, baina itxitura horizontalei dagokienez.
- e) Erreberberazio-denboraren mugako balioen eta jangeletan eta jatetxeetan hartutako neurri zuzentzaileen justifikazioa, $T < 0,9$ sg balioa oinarri hartuta.
- f) Ipinitako musika-ekipamenduaren eta jardueran dauden beste zarata-iturri batzuen deskribapena, ikus-entzunezko ekipamenduen gehieneko igorpen-balioak adierazita.
- g) Makineriaren eta instalazioen igorpenen eta transmisioen baldintza akustikoak.
- h) Jarduerako lokaleko ateak irekitzeko baldintzak (ate bikoitza ezartzeko derrigorra egon liteke, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuaren arabera).
- i) Zamaletarako jarduerarako baldintzak.
- j) Era berean, ekipamendu mugatzaileen eta erregistratzaileen ezaugarriak ere zehaztu behar dira, ordenantza honen 24. artikuluan jasotakoa zorrotz betetzen dela egiaztatuz.

4. EAEko Kutsadura Akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak aldameneko lokaletara transmititzen den zarataren mugako balioak eta gehieneko balioak zehazten ditu, eta zehaztu egiten ditu, halaber, jarduera berrietan ezarri beharreko gutxieneko isolamendu akustikoa, aldameneko lokaletara zarata igortzen dutenean. Hona hemen laburpena:

1. TAULA. JARDUERA BERRIEK ALDAMENENKO LOKALETARA IGORTZEN DUTEN ZARATAREN MUGA-BALIOAK

ALDAMENENKO LOKALAREN ERABILERA	ESPARRU MOTA	ZARATA INDIZEAK		
		LKD	LKE	LKN
Bizitegia	Egoteko guneak	40	40	30
	Logelak	35	35	25
Administrazioa eta bulegoak	Bulego profesionalak	35	35	35
	Bulegoak	40	40	40
Osasun-arloa	Egoteko guneak	40	40	30
	Logelak	35	35	25
Hezkuntza- edo kultura-arloa	Ikasgelak	35	35	35
	Irakurketa-gelak	30	30	30

2. TAULA. JARDUERA BERRIEK ALDAMENENKO LOKALETARA IGORTZEN DUTEN ZARATAREN GEHIENENKO MUGA BALIOAK

ALDAMENENKO LOKALAREN ERABILERA	ESPARRU MOTA	ZARATA INDIZEAK		
		LKD	LKE	LKN
Bizitegia	Egoteko guneak	50	50	40
	Logelak	45	45	35
Administrazioa eta bulegoak	Bulego profesionalak	45	45	45
	Bulegoak	45	45	45
Osasun-arloa	Egoteko guneak	50	50	50

	Logelak	45	45	35
Hezkuntza- edo kultura-arloa	Ikasgelak	45	45	45
	Irakurketa-gelak	40	40	40

5. Jarduera guztiek ezarri behar dituzte aurreko atalean edo indarrean dagoen araudian (bietatik zorrotzena) zehaztutako muga-balioak eta kalitate-helbururako balioak betetzeko neurriak.

6. Aldameneko lokaltzat jotzen da kanpoaldeko ingurumenaren bidez igorlearen eta hartzailearen artean ez denean zarata-transmisiorik gertatzen. Zarata kanpoaldeko ingurumenaren bidez transmititzen den gainerako kasuetan, 21. artikuluan adierazitako balioak bete beharko dira.

20. artikulua. Zarata-maila jardueraren kanpoaldean

Jarduera berri guztiek ezarri beharko dituzte baliabide eta neurri egokiak, indarrean dagoen araudiak (213/2012 Dekretuak) zehazten dituen kanpoalderako kalitateko balio-helburuak ez gainditzeko. Honako hauek dira, zehazki:

AREA AKUSTIKO MOTA		ZARATA INDIZEAK		
		LD	LE	LN
E	Osasun-, irakaskuntza- eta kultura-alorreko lurzorua nagusi izanik, kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia eskatzen duten eremuak.	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
D	Batez ere C-n jasotako bestelako erabilera tertziarioko lurzorua daukaten lurraldearen eremuak/sektoreak	70	70	65
C	Batez ere aisialdiko eta ikuskizunen erabilerako lurzorua daukaten lurraldearen eremuak/sektoreak	73	73	63
B	Batez ere industria-erabilerako lurzorua daukaten eremuak/sektoreak	75	75	65

21. artikulua. Aire-zaratarako eta inpaktuen zaratarako isolamendua aldameneko lokalen artean

1. Kaltetuena den esparru babestuaren (edota, bestela, esparru bizigarriaren) eta bertikalki edo horizontalki aldamenean duen jarduera-esparruaren arteko aire-zaratarako gutxieneko

isolamendu akustikoa, DnT,A (100 eta 5KHz bitartean kalkulatuta), honako balio hauek baino altuagoa izango da:

3. TAULA. BIZITEGIETARAKO HIRI-LURZORUAN KOKATUTAKO JARDUERA BERRIETAN, ALDAMENENKO LOKALETARAKO TRANSMISIOA DUTENETAN, EZARRI BEHARREKO GUTXIENENKO ESKAKIZUNAK			
SOINU IGORPENAREN MUGA (DBA)	AIRE ZARATAREKIKO GUTXIENENKO ISOLAMENDUA (DNT,A), EGUNEKO ORDUTEGIA	AIRE ZARATAREKIKO GUTXIENENKO ISOLAMENDUA (DNT,A), GAUEKO ORDUTEGIA	INPAKTU ZARATA ESTANDARIZATUEN GEHIENENKO PRESIO BALIOA (L 'N,TW)
< 85 dBA	60 dBA	65 dBA	40 Db
90 dBA	65 dBA	70 dBA	40 dB
95 dBA	70 dBA	75 dBA	40 dB

2. Kaltetuena den esparru babestuen (edota, bestela, esparru bizigarriaren) eta bertikalki edo horizontalki aldamenean duen jarduera-esparruaren arteko inpaktu-zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, DnT,A (100 eta 5KHz bitartean kalkulatuta), 1. ataleko taulan zehaztutako balioak baino txikiagoa izango da.

3. Soinu-igorpenaren mugak (dBA-tan) jarduera sailkatuta dagoen Taldearen arabera finkatuko dira, eta ez dituzte inolaz gaindituko 1. ataleko taulan adierazitako balioak.

4. 07:00 eta 23:00 bitartean eguna dela joko da eta 23:00 eta 07:00 bitartean, berriz, gaua.

22. artikulua. Aldameneko lokaletara zarata transmititzen duten jardueren mugako balioak betetzen direla egiaztatzea

1. Ebaluazio-indizea adierazten duen lagin-denboran neurtutako balio batek ere ez ditu gaindituko Ordenantza honetako 20. artikulua 4. ataleko 2. taulan finkatutako balioak.

2. Urteko batez besteko balio batek ere ez ditu gaindituko Ordenantza honetako 20. artikulua 4. ataleko 1. taulan finkatutako balioak.

3. Eguneko balio bat ere ez da izango Ordenantza honetako 19. artikulua 4. ataleko 1. taulan finkatutako balioak baino 3dBa altuagoa.

4. Ebaluazio-indizea adierazten duen lagin-denboran neurtutako balio bat ere ez da izango Ordenantza honetako 19. artikulua 4. ataleko 1. taulan finkatutako balioak baino 5 dBA altuagoa.

5. Jardueren ikuskapenaren ondorioetarako, arian den jarduera batek dagozkion muga-balioak betetzen dituela joko da 212/2012 Dekretuaren II. eranskinaren arabera ebaluatutako indize akustikoen balioek artikulua honen 1., 3. eta 4. paragrafoetan adierazitakoa betetzen dutenean.

6. Lizentzia eta baimena eskuratzeko eta, ondoren, aurretiko komunikazioaren edota erantzukizunpeko adierazpenaren pean dauden jarduerak betetzen direla egiaztatzeko ondorioetarako, onetsitako erakunde batek emandako txosten bat eman beharko du jarduera sustatzen duen pertsonak edo erakundeak, 19. artikuluko 4. ataleko 1. taulako eta 21. artikuluko 1. ataleko 3. taulako balioak betetzen direla egiaztatzeko (azkenean aipaturiko 3. taulari dagokionez, gutxieneko muga-balioak ulertu behar dira).

7. Aurreko paragrafoak aipatzen dituen erakunde gaituek honako arau hauek bete behar dituzte: UNE EN ISO 140-4:1999, eraikinetan eta eraikuntza elementuetan isolamendu akustikoa neurtzea. 4. zatia: lokalen arteko aire-zaratarekiko isolamendua in situ neurtzea; UNE EN ISO 140-7:1999: eraikinetan eta eraikuntza-elementuetan isolamendu akustikoa neurtzea. 7. zatia: Lurzoruen inpaktu-zaratarekiko isolamendua in situ neurtzea; urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren IV. eranskina, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, edo horiek ordeztzen dituzten arauak.

23. artikulua. Ekipamendu mugatzailea/erregistratzailea

1. Musika-ekipamendu guztiek ekipamendu mugatzailea/erregistratzailea izango dute, gutxienez honako ezaugarri hauekin:

- a) Frekuentzia-bandak mugatu behar dituzte.
- b) Soinu-kate osoan esku hartu behar dute.
- c) Egiaztatzeko barne-sistema bat eduki behar dute, saio bakoitzaren hasieran soinu-instalazioan egindako manipulazioak edo aldakuntzak antzemateko.
- d) Mikrofono bat eta saio bakoitzean lokal igortzailean egon diren soinu-mailak biltegitratzeko erregistro sonografiko bat eduki behar dute. Datu horiek gutxienez lau (4) hilabetean gorde behar dira.
- e) Pasahitz bidezko sarbide-sistema eduki behar dute, hasierako konfigurazioa aldatzea galarazteko eta, aldatuz gero, ekipamenduaren barneko memorian aldakuntza erregistratuta gelditu dadin.
- f) Lokalean dauden soinu-mailak eta barruko memorian biltegitratutako datuak denbora errealean urrunera igortzeko sistema bat eduki beharko dute.
- g) Soinu-mailak, aldiaren aldiko ikuskapenak eta azken sarbideen erregistroak euskarri fisiko egonkor batean biltegitratuko dira, tentsio-etenen ondorioz ez jasateko.
- h) Udal zerbitzu teknikoek biltegitratutako datuak eskuratu ahal izateko sistema bat egongo da ezarrita, datuok aztertu eta ebaluatzeko aukera izan dezaten.

2. Neurtutako isolamendu akustikoekin gehi frekuentzia banda bakoitzean 3 DB-ko zainzarguarda batekin ezarriko da neurgailua.

3. Neurtu ez badira, 100Hz-tik beherako bandetako isolamendu akustikoak konfiguratzeko, arreta egingo da 100 Hz-ko isolamendua baino 2 dB txikiagoak izan daitezkeen zortzidun-hereneko banda bakoitzean.

4. Soinu erreproduzioko/anplifikazioko ekipamendurik (eta, beraz, mugagailua/erregistragailua ezartzeko derrigorrik) eta 42 hazbetetik gorako ikus-entzunezko sistemarik ez duten jarduerak 75 dBA-ko soinu-igorpena izango dute gehienez.

VIII. KAPITULUA ARAUBIDE JURIDIKOA

24. artikulua. Instalazio berrietarako dokumentazioa

1. Alkate jaunari zuzendutako idazki baten bidez aurkeztuko da eskaera. Honako hauek jasoko dira bertan: eskatzailearen izen-abizenak, NANA eta telefonoa, eta jarduera ezarri nahi den lekua.

Eskatzaileak zer eginkizun duen adierazi beharko da argi eta garbi: beraren izenean edo beste norbaiten izenean ari den; bigarren kasuan, eskuordetzea egiaztatu beharko du.

2. Eskaerarekin batera teknikari gaituak idatzitako eta sinatutako proiektu teknikoa atxikiko da, dagokion Elkargo Profesionalaren ikus-onespenarekin. Proiektu teknikoak honako agiri hauek izango ditu:

2.1. Memoria, eta, barnean:

a) Jardueraren deskribapena:

- Jardueraren ezaugarriak (edukiera, elikagaien taldea eta abar).
- Ezarri beharreko makineria, haren mota eta ezaugarriak, eta makina bakoitzaren zaldi-potentzia.
- Lokalaren azalera osoa eta bera osatzen duten aretoetako bakoitzarena (komunena, aldagelena, biltegiena eta abar).
- Zaraten eta bibrazioen igorpena murrizteko proposatzen diren baliabide eta sistema zuzentzaileak, eta soinu-maila onargarria lortuko dela bermatzeko justifikazio-kalkuluak.
- Keak, gasak eta usainak arazteko eta kentzeko prozedura.
- Hondakin-urak eta hondakin solidoak husteko sistema.
- Instalazio higieniko-sanitarioak.

b) EKTan suteen aurkako segurtasunari, erabilera-segurtasunari, irisgarritasunari eta zarataren babesari buruzko oinarrizko dokumentuak (SI, SUA, HR) betetzen direlako justifikazioa.

c) Hala badagokio, Jendaurreko Ikuskizunetarako eta Jolas Jardueretarako Poliziaren Erregelamendu Nagusia betetzen delako justifikazioa.

d) Irisgarritasuna sustatzeari buruzko 68/2000 Dekretuaren justifikazioa.

e) Behe-tentsioko Erregelamenduari buruzko 842/2002 Errege Dekretuaren (1321/2002 LEGEA) justifikazioa.

f) Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari buruzko 1027/2007 Errege Dekretuaren (8990/2007 LEGEA) justifikazioa.

g) Zarataren Igorpen-mailari, Kontrolari eta Kuantifikazioari buruzko 171/1985 Dekretuaren eta Zarataren 37/2003 Legearen eta 213/2012 Dekretuaren justifikazioa.

h) Eskatzailearen konpromiso egiaztatua, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen 10/2015 Legea (24/2016 LEGEA) eta Ordutegi Publikoei buruzko 296/1997 Dekretua, 210/1998 Dekretua, 36/2012 Dekretua eta 14/2014 Dekretua eta berorien aldakuntzak betetzen dituela adieraziz.

2.2. Eskalan egindako planoak, gutxienez honako informazio hau jasoko dutenak:

a) Jardueraren kokalekua, 1:5.000 eskalan.

b) Eraikina 1:1.000 eskalan. Kartografia ofizialaren kopia izango da eta bertan adieraziko da zer eraikinetan ezarri nahi den jarduera

c) Banaketa-solairuak, 1:50 eskalan. Bertan zehaztuko da makineria guztia non ezarriko den eta non kokatuko diren suteen aurkako baliabideak, bai eta larrialdietarako eta seinaleztapeneko argiteriaren kokalekua eta ezaugarriak ere.

d) Hala badagokio, lokalaren edo lokalen zonakatzea, DB-SI kode teknikoa betetze aldera.

e) 1:50 eskalan egindako sekzioak, justu goiko eta beheko solairuekiko jarduerak izango duen kokalekua zehazteko, eta jarduerak solairu bat baino gehiago erabiliz

gero, horietako bakoitza zertarako erabiliko den. Lokalaren puntu bakoitzean egongo diren altuera libreen kotak ezarriko dira sekzioetan, lurzorutik sabaira, behin instalazioak eta neurri zuzentzaileak ezarri ondoren.

f) Fatxadaren altxaera 1:50 eskalan, aldameneko lokalak eta justu goiko solairurako tartea ere kontuan hartuta.

g) Proposatutako neurri zuzentzaileetarako erabaki diren eraikuntza-irtenbideen xehetasuneko planoak, 1:20 eskalan (ainguraketak, intsonorizazioa etab.).

h) Elektrizitateko, iturgintzako, saneamenduko, aireztapeneko, aire girotuko eta aire-girotze orokorreko instalazioen eskema, 1:50 eskalan.

2.3. Gainera, honako separata hauek ere bilduko ditu:

a) Ordenantza honetako 1. artikuluan jasotako sailkapenaren arabera, jarduera zehatz hori zein taldetan sailkatu behar den, eskatzailearen ustez (tramitazioaren ondoren beste talde batean sailkatzeko aukera egongo da).

b) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emateko agiriaren fotokopia.

25. artikulua. Lizentziak ematea

Eskaerarekin batera datorren dokumentazioan zerbait falta bada, eskatzaileari 15 eguneko epea emango zaio hutsak betetzeko. Epe horretan hala egiten ez badu, asmoan atzera egin duela ulertu eta espedientea artxibatu egingo da.

26. artikulua. Lizentzien titulartasuna aldatzea

1. Udalari derrigorrez jakinarazi behar zaio jardueraren titulartasuna eskualdatu edo aldatzen bada. Idazki horretan derrigorrez adierazi beharko da titular berriak zein Taldetan kokatu nahi duen jarduera edo establezimendu zehatz hori.

2. Jakinarazpenarekin batera atxikiko dira egungo jardueraren lizentziaren erreferentzia, eta aurreko titularrak eskualdatzea onartzen duela eta leku berean jarduera hori egiteari utziko diola egiaztatzeko agiria.

3. Eskaerarekin batera, halaber, soinu-igorpenak sortzen dituzten aparailuen kopurua, mota eta ezaugarriak ere gehitu beharko dira.

4. Orobat, eskaera egiteko unean lokalak duen aire-zaratarako eta inpaktu-zaratarako isolamenduaren egoera, pertsona edo enpresa gaitu batek sinatuta.

5. Zarata-igorpena onartutakoa baino altuagoa bada, halakoak saihesteko behar diren neurri guztiak hartu beharko dira.

27. artikulua. Betetzea eta egiaztatzea

1. Jarduera-lizentzia behar duten jarduera sailkatuen kasuan, establezimenduak lizentzia izapidetu eta eskuratu ondoren bakarrik jarriko dira abian. Hori baino lehenago, baina, alor horretako udal-teknikariak ikuskaritza-bisita egin ahal izango du, aurkeztutako proiektua eta jarduera-lizentzian eskatutako neurri zuzentzaileak behar bezala bete direla egiaztatzeko.

2. Ondorio horietarako, instalazioa burutu eta gero, ikuskaritza egiteko eskatuko dio jardueraren titularrak Udalari. Eskaera horrekin batera txertatuko du obra-zuzendariak sinatutako

egiaztagiria, lanak burututa daudela eta proiektuaren aurreikuspen guztiak eta jarduera- eta obra-lizentzian agindutako baldintza guztiak bete direla dioena.

3. Halako instalazioen jabeek, arduradunek edo titularrek derrigorrez laga behar diete instalazioetan sartzen udal-ikuskatzaile eta -agenteei, halakorik eskatzen dieten guztietan. Dena dela, eta hala nahi badute, ikuskapenak eta egiaztapenak ikusteko aukera izango dute, eurek aukeratutako teknikari batek lagunduta.

4. Titularrak aurreko paragrafoan aipaturiko derrigorriari uko egin eta jarduera desegoki dabilelako salaketak egiaztatzeak aukera galarazten badu, jarduera desegoki dabilela joko da eta arau-hausteagatik edo neurri zuzentzaileak ez ezartzeagatik zigor-espedientea tramitatzen hasiko da, horretaz gain beste eginbide batzuk egiteko aukerari uko egin barik.

5. Edozein pertsona fisikok edo juridikok Udalaren aurrean salatu ahal izango du Ordenantza honetako edozein jarduera edo instalazioren ezohiko funtzionamendua.

6. Udal funtzionarioek lokalak Ordenantza honetan eta xedapen osagarrietan jasotakoa betetzen ez duela egiaztatu ondoren, akta jaso eta interesdunari horren berri emango diote. Ondoren, hamar (10) eguneko epea izango du egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezteko. Egindako jarduketak ikusirik, udal-organo eskudunak beharrezko neurri zuzentzaileak aginduko ditu, eta horiek ezartzeko gehieneko epea ere zehaztuko du.

7. Aurreko puntuan adierazitako ebazpenean, eragozpenak, trabak eta kalteak eragin dituen instalazioaren erabilera eta funtzionamendua aldi batez eteteko edo erabilera aldi batez galarazteko aukera ere egongo da.

28. artikulua. Iraungitasuna eta luzapena

1. Ordenantza honen pean dauden establezimenduak eta jarduerak ezartzeko, legeztatzeak, lekualdatzeak edo handitzeko ematen diren udal-lizentzia guztiak iraungitzaile eta efektu gabekotzat joko dira (aurretiaz interesduna entzun ostean), honako egoera hauetan:

- a) Lizentzia eman eta sei (6) hilabeteko epean lanak abiarazi ez baditu.
- b) a) atalean zehaztutakoaren gaineratik, baimena aitortzean zehaztutako epean obrak edo instalazioa amaitu ez badu.
- c) Jarduera hiru (3) hilabetez edo hortik gora publikoarentzat itxita mantentzen bada, salbu eta eten hori ez bada arauz agindutako edo baimenen ondoriozko lanen edo instalazioen ondoriozuzena.

2. Lehen hiru suposamenduetan, epearen erdiko luzapena aitortuko da, baldin eta epe hori baino lehen interesdunak eskaera arrazoitua aurkezten badu. Zehaztutako epeak edota, hala badagokio, aitortutako luzapenak, ez diete kalterik egingo ezinbesteko kasuetan sortutako atzerapenei, baldin eta interesdunak behar bezala arrazoitu eta azaltzen baditu.

29. artikulua. Zehapen-araubidea

Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legeak (24/2016 LEGEA), EAEko Ingurumena Babesteko martxoaren 27ko 3/1998 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta aplikatzeak diren gainerako lege-testuek zehaztutakoak aginduko du.

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE ACTIVIDADES HOSTELERAS Y SIMILARES EN LA CALLE ELIXALDE Y AITA SAN MIGEL PLAZA

Es costumbre en nuestros pueblos la apertura de establecimientos, que son objeto de pública concurrencia, para el esparcimiento y ocio. En los últimos años, se ha suscitado entre los ciudadanos del municipio un gran interés por la instalación de actividades hosteleras, tales como bares, cafeterías o txokos, en el entorno de la Iglesia parroquial y el Ayuntamiento del municipio de Iurreta. Con el objeto de dar satisfacción a tal demanda, y con la finalidad de financiar proyectos de inversión para el desarrollo social y económico del municipio, el Ayuntamiento pretende impulsar la implantación de actividades hosteleras que contribuyan a dotar a esta zona de un mayor dinamismo y afluencia de gente.

No obstante, la Administración no puede permanecer inactiva ante el establecimiento de estas actividades hosteleras, que requieren normalmente la instalación de equipos eléctricos, electrónicos y/o maquinaria industrial relacionada con la restauración que son susceptibles de constituir un peligro para la seguridad, no sólo de quienes están encargados de manejarlos, sino también del público en general.

De otra parte, la adecuada utilización del ocio y la seguridad ciudadana, son valores que interesan al municipio y cuya protección, en beneficio de la comunidad vecinal, no sólo legitima sino que demanda una efectiva acción del Ayuntamiento.

Resulta también evidente que este tipo de establecimientos, si su actividad no se somete a una regulación técnico-jurídica adecuada, pueden provocar y de hecho provocan, el conflicto de intereses que se da entre el interés del particular titular de la actividad en el ejercicio de su negocio, y el interés público general, identificado en el presente caso con el derecho a la intimidad y seguridad de cuantos vecinos residen en la proximidades de estos establecimientos que no pueden verse abocados a sufrir perturbaciones en su tranquilidad a causa de las molestias producidas por ruidos en el interior del local.

Se hace preciso, a todos estos efectos, adoptar las oportunas disposiciones que ordenen la acción de la Administración municipal en este campo, lo que se hace por medio de la presente Ordenanza reguladora de la instalación y actividad de establecimientos destinados a actividades de hostelería y similares.

La definición de las actividades se realiza basándose en el Decreto 171/1985 del Gobierno Vasco. El planteamiento de esta definición de las actividades es describir, en la mayor medida de lo posible, las características de la actividad que sean relevantes para el establecimiento de las exigencias a cumplir en materia de ruido, vibraciones, horarios..., etc.

En definitiva, la regulación de la convivencia pacífica de la ciudadanía en lugares de esparcimiento, garantizando el mantenimiento de las condiciones de seguridad y calidad de los establecimientos y la protección civil y del medio ambiente, en una zona considerada como histórico – cultural por las especiales características del entorno donde se ubican la Parroquia y el Ayuntamiento del municipio de Iurreta, constituyen los objetivos primordiales de esta Ordenanza, tomando como objetivo último la conciliación del ejercicio de actividades económicas por particulares y el derecho al descanso y la tranquilidad de la ciudadanía.

